

Etzi eta Pitz (XV): Beñat Iturrioz.



2019-05-31

Irakasle eta arkeologo lanetan aritakoa da Beñat Iturrioz (Hernani, Gipuzkoa, 1981). Kirol magisteritzan eta historian lizentziatua.

Txalaparta jotzailea. *Ataun of the dead trilogia* zuzendu du.

Trilogiako azkeneko filmak ez du inor epel utzi. *Napardeath* du

izena. Ekainean makina bat proiektzio izango dituzte: 5ean Bilbon,

7an Hernanin, 8an Donezteben, 11n Urretxun, 13an Itziarren,

14an Barakaldon, 15ean Iruñean... [Katihotsak logia kultur](#)

[elkartekoak](#) pozik daude filma izaten ari den harrerarekin.

Trilogia bat zuzendu duzu. Francis Ford Coppola eta George Lucas adina bazara dagoeneko. Amets bat bete duzula esango zenuke?

Bai, zeren trilogiak pelikula soilak baino *guapoagoak* dira. Pentsa, *El Padrino, Indiana Jones, Star Wars, Back to the future...*

Horrelako pelikula guztiak trilogia ziren. Hurrengo filma iritsiko denaren zain zaude, eta beste xarma bat dauka trilogiak. Enbido bat izan zen Xabier Padinek eta biok bata besteari bota geniona, duela ia bederatzi urte. Eta honaino iritsi gara.

Coppolak eta Lucasek ez dute Agosti Xaho interpretatu film labor batean, zuk egin duzun moduan.

Bai, Xaho niretzat oso pertsonaia berezia da. Prekursorea izan zen kontu askotan. Oso tipo periferikoa, eta aldi berean oso interesgarria izan zen. Gure historiak eman duen pertsonaiarik bitxienetakoa da. *Azti begia* film laburra egitera jarri ginenean, argi nuen nik egin nahi nuela Xahorena. Gero komeriak, kameraren atzeko lanak ere egin behar nituelako...

Tabakalerako web orrialdeko zure soslai batean esaten da zure ametsa dela Euskal Herriko zinemagile txarrena bihurtzea.

Bai, hala da. Txantxa bat egiten nuen Ed Wood zinemagilerekin
Trilogian aritu garenoi asko gustatzen zaigu Wooden estiloa, oso punkia baita. Momentuak du garrantzia, eta ez hainbeste teknikak eta horrelako gauzak. Egitea da kontua, eta ez itxoitea. Ed Wood munduko zinemagilerik txartzat jo izan da. Erreferentziak egin izan dizkiogu trilogian.

Adibidez, *Joxean's hil eben* trilogiako bigarren zintan agertzen den Banpiraren pertsonaia Ed Wooden pelikula batean agertzen den pertsonaia da.



Txarra edo hobea, baina ziur aski herritar askok ez dute hainbeste barre egin euskarazko pelikula bat ikusten, *Napardeath*-ekin egin duten moduan. Barre asko entzun dituzue lehen bederatzi proiektioetan?

Bai, eta zalantzak genituen ea nola funtzionatuko zuten txantxek.

Ikusle bakoitzari grazia egiten dio gauza desberdin batek. ²⁰¹⁹⁻⁰⁵⁻³¹ Askok dituzten filmak, informazioa dago oso jende desberdinentzat.

Ikusle bakoitzak hartzen ditu erreferentzia batzuk edo besteak. Haurrak eta adinekoak etorri dira proiektioetara, eta hori ez genuen espero. Harritzen nau, baina esan digutenez haur askori gustatu zaie eta adinekoei ere bai. Bestetik, Euskal Herrian dauden mundu desberdinetako jendeak ikusi du filma. Euskal mundutik oso urrun dagoen jendea ere etorri da trilogiako hiru pelikulak ikustera, eta barre egin dute. Askok pozten gaitu horrek, zubi bat eraikitzen delako. Euskal produkzio batera sekula gerturatuko ez zen jendea erakarri dugula esango nuke.

***Napardeath*-eko gidoian ez dago kasualitaterik. Esaten diren esaldi asko historia urrunekoan edo hurbilekoan esan diren esaldiak dira, ezta?**

Bai, ez dago ezer ausaz. Dena dago nahita jarrita. Kasu batzuetan txantxa absurdoak egiteko nahiarekin daude sartuak. Gure historia politiko hurbilean dago trilogia oinarrituta.

Niretzat, Agosti Xaho eta Marc Legasse funtsezkoak dira trilogiaren istorioa osoa kontatzeko. Historialari askok esaten dute historia objektiboa dela, baina gehienak lerrokatzen dira ildo politiko batera edo bestera. Azkenean politika egiten dute, ia guztiek. Guk ez dugu hori ezkututzen. Fikzioa egin dugu, eta mito berriak sortu nahi ditugu. Edo garai bateko mitoak ekarri eta eguneratu. Xahok *Voyage a Navarre* idatzi zuenean, gerra karlistetan ibili zen. Elkarrizketa bat egin omen zion Tomas Zumalakarregiri, eta gero demostratu da ezinezkoa zela elkarrizketa hura gertatu izana. Baina elkarrizketa horretan, Xahok irudikatzen du Zumalakarregi abertzalea eta azken euskalduna balitz moduan. Oso erromantikoa. Eta hori gezurra da, Xahok asmatutako zerbait. Xahori ez zitzaion hainbeste inporta errealitatea, baizik eta mitoa eraikitzea eta hori helaraztea euskaldun jendeari. Hori da garrantzitsua, nire ustez: mitoak

eraikitzea. Marc Legassek, bestetik, *Santxo azkarra* ²⁰¹⁹⁻⁰⁵⁻³¹ ~~eraren parabola~~ idatzi zuen, eta bertan azaleratzen zuen azken finean errege guztiak berdinak direla. Idazten du *Antxo azkarra* burdeletan eta ardoa edaten zebilela Granadan, gaztelarrek Gasteiz erasotu eta konkistatu zutenean. Erregeei ez zaie herria inporta. *Antxo azkarra* desmitifikatu zuen Legassek. Guk ere mito batzuk deseraiki nahi izan ditugu, eta horregatik *Napardeath* pelikulan *Antxo azkarra* da metro eta erdiko emakume bat. Erakusteko mitifikatzen dugun historia hori ez dela guk uste izan duguna bezalakoa.

***Napardeath*-en satira politiko asko dago. Politikarien esaldiak ere ez dira falta. Ibaian krokodiloak egotea, adibidez, zerbaitegatik da, ezta?**

Bai, Jon Idigoras zenak esandako zerbait zen. Krokodiloak Ebro ibaian. Gero Alberto Pradilla kazetariak ere [blog bat sortu zuen, *Cocodrilos en el Ebro* izenburuarekin](#). Grazia handia egiten zигun esaldiak. Nahita sartutako horietako bat.

Trilogiako bigarren eta hirugarren filmak nahiko desberdinak dira. Azkenekoan politika gehiago eta odol gutxiago dago.

Nahi izan dugu bueltatu lehenengora. Aurrenekoan ere bazegoen satira. Bigarrenean akzio gehiago zegoen.

***Ataun of the dead I*, osorik:**

Bigarren filmean konturatu ginen akziozko eszenak eta zonbiak erabiltzeak asko konplikatzen zuela produkzioa.

***Ataun of the dead II*: 'Joxean's hil eben', osorik:**

Hirugarren filmaren grabaketa ez da erraza izan. Toki guztietan grabatu baitugu: uretan, mendian, basamortuan... Baina ikasi dugu ekoizten modu praktikoago batean, eta ahalik eta denbora gutxien

galduz. Ekonomizatzeko, batez ere. Akziozko eszenak grabatzea oso zaila da. Azkeneko gudua grabatzeko hiru egun behar izan genituen.

Sosik ez, baina lagun eta ezagun asko proiektuan laguntzea lortu zenuten.

Bai, eta ezezagunak ere bai. Aurreko filmeko *merchandising* pixka bat saldu genuen, eta horri esker sos batzuk bagenituen. Baina ia ezer ez: mila eurora ez zen iritsiko. Katihotsak elkartea sortu genuen lehen pelikula egin ostean, erakunde bat izateko ekoizpenerako. 18 lagun inguru gara elkarteko kideak. Hasieran dirua jarri genuen, eta guk egin dugu ekoizle eragilearena. Hernaniko Udalak ere diru laguntza bat eman zigun. 3.000 euro behar genituen, eta osatu genituen. Gero, kamisetak eta poltsak salduz atera dugu dirua, geure buruari itzultzeko jarri genuena. Jende guztia hau batu ez balitz, ezinezkoa izango zen. 150 lagunek parte hartu zuten *Napardeath*-en, eta horiei esker existitzen da pelikula.

Paradoxikoa bada ere, esan izan dugu diru gehiagorekin ezin izango zela egin. Jende guztiak, talde teknikoak eta figuranteek kobratu izan balute, zenbat kostatuko zen? 100.000 euro inguru izango ziren.

Auzolanean egin dugu trilogia. Auzolana ez da ezohikoa Euskal Herrian arlo askotan. Zineman bitxiagoa da, industria bat delako. Herri antzerkiak, pastoralak eta herriko jaiak horrela egiten dira. Auzolanean eta espiritu horrekin egin dugulako batu zaigu jendea. Herrigintzako proiektuetarako sinesten dut auzolanean.

Trilogian ekoizleak egon izan balira, filtro batzuk egongo ziren, eta ez zen erraza izango. Esango nuke, bestalde, errazagoa dela umore mota hori TV3en ikustea ETBn baino.

Zinema kontuak apur bat albora utzita, hitz egin dezagun

arkeologiaz. Zeintzuk izan dira zuretzat une berezianak arkeologo gisa?

2019-05-31

Arkeologia da iraganera bidaiatzeko modu bakarra. *Back to the future* filmean bezala bidaiatzeko modu bakarra. Niri ez zait tokatu duela 20.000 urteko pinturak aurkitzea. Baina halakoak suertatzen direnean, duela milaka urteko pertsonekin konektatzen zara. Ataungo jentil-baratzean (Gipuzkoa), adibidez, hezurrez egindako dado bat aurkitu nuen. Jolaserako erabiltzen zuten dado bat zen, 1.200. urte ingurukoa. Irlandan lanean izan nintzenean, mendi tontorretako gotorlekuetan ibili ginen. Xarma berezia zuten. Nahasten da magia eta mitologia... Lankide batzuek eremu horietako magian sinesten zuten. Kondaira bat dago esaten duena neguko eta udako solstizioan ate bat irekitzen dela toki horietan, *ultramundura* eramaten zaituena. Zeltak iritsi aurretik, izaki batzuk bizi ziren Irlandan; batzuk bizi ziren munduaren azpian eta beste batzuk munduaren goian. Arkeologo lankide zenbaitek ate horretan sinisten zuten, ez erabat, baina tira, ondo dago mitologia guzti hori.

***Elkarrekin Together* dokumentalean azaldu zinen kameren aurrean arkeologo lanak egiten. Nola izan zen AEBetako abentura hura?**

Abentura handi bat. Sekula Ameriketara egon gabe nintzen. Detektibe lanak egitea ere bada arkeologia: pistak jarraitzen dituzu. Placentia izeneko uharte batean egon ginen hilabete batez, zuloak egiten. Egiazko abentura bat izan zen. Koilare zati bat aurkitu genuen, antza denez Donibane Lohizunen (Lapurdi) egindakoa izan zitekeena. Interesgarria izan zen hura.

Dokumental laburrak eta erreportajeak egiten dituzue [Bira ekoizpen etxean](#). Nola sortu duzue Bira, eta zer asmorekin?

Eñaut Tolosa gidoilariarekin egina nuen [Euskal baleazaleen](#)

[triskantza dokumentala](#). Bestetik, Katihotsak elkartearen beste bi lagunekin elkartu ginen: Mikel Álvarez eta Oskarbi Sein. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak egiten ditugu, enpresa txikientzat eta kooperatibentzat. Ekitaldiak grabatu, iragarkiak grabatu eta editatu, eta bestelako zerbitzuak eskaintzen ditugu. Gidoiak ere idazten ditugu. Oskarbi diseinuak eta animazioak ere egiten ditu. Bestetik, gure ekoizpen propioak egiteko sortu genuen ekoiztetxea. Proiektu batzuk bidean dauzkagu.

Zein da aurreratu dezakezun proiektu horietako bat?

Aurreko urtean Mendiben (Nafarroa Beherea) egon ginen dokumental bat grabatzen. Kontua da II. Mundu Gerran, Comète Sarearen antzeko sare bat zegoela han. 0 Linea izena zuen, eta belgikarrentzat izan zen. Istorio interesgarri bat zegoen hor. 1940ko hamarkadan parte hartu zutenen seme-alabak eta ilobak etorri ziren, Mendibetik Orbaitzetara oinez bida egitea. Konturatu ginen materiala zegoela dokumental bat egiteko. 30 minutu ingurukoa izango da. Baionan aurkeztuko dugu laster.



Bira kooperatiba bat da. Zer esango zenuke kooperatiben ereduaz?

Kooperatiba sortu dugu, gure balioengatik. Modu horizontalean lan egin nahi dugu, eta kooperatibak hori ahalbidetzen digu. Ekonomia sozial eraldatzailean ere sinesten dugu. Ikus-entzunezkoek berez ez dute ezertarako balio; elikagaiak dira, baina arimarentzat. Bizitza hau psikologikoki jasangarria izan dadin, behar duzu hori. Kulturaz elikatu behar gara, zeren bestela erotuta hilko ginateke. Nik sentitzen dut zerbait egin behar dugula, inguratzen gaituzten herriekiko eta pertsonetikiko. Gauza asko modu altruistan egiten ditugu, horretan sinisten dugulako. Tokiko garapenean ere eragiten saiatzen gara.

Kontraesanak ere izango dituzue?

Bai, kontraesan handiak. Bidea nola egiten dugun garrantzitsua

2019-05-31

da. Zerbait egiten dugunean, denek berdin kobratzen dugu, zen jendea erakarri dugu adibidez. Eta norbait kontratatzen dugunean, guk bezala kobratzen du.

Bestetik, oso mundu maskulinizatua da ikus-entzunezkoena. Eta emakumeen rola askotan da produkzioa, makillajea eta horrelako lanak. Hori diot, eta begira Biran lau gizon gara.

Iturolan ari gara elkarrizketa egiten, Hernaniko Elkarlan Sorgunean. Nolako proiektuak daude eraikin honen barnean?

Denetarik dago: sexu heziketan lan egiten dutenak, argazkilariak, energiaren kudeaketan aritzen direnak, espazioen antolaketan aritzen direnak, pertsonen ahalduntzean laguntzen dutenak... Askotariko proiektuak daude. Ekonomia sozial eraldatzailean sinesten dute. Bizitza zentroan jartzera bideratuta daude, inguruko herritarren beharrak asetzera bideratuta. Aberatsena da jendearekin dagoen tratua, dagoen giroa... antzeko balioak daude eta elkar zaintza bat dago guztion artean. Hori ordainezina da.

Nola ikusten dituzu hamar urte barru Katihotsak eta Bira?

Katihotsak berez trilogia egiteko sortu zen. Tartean egin genituen film labur batzuk eta ikastaro batzuk. Baina agian lur azpian geldituko da sator baten moduan. Trilogiari dagokionez, plana da laugarrena Steven Spielbergekek Hollywoodean zuzentzea, eta gu prest gaude royaltyak kobratzen bizitzeko (barreak).

Bira produkzioak gure bizitzako proiektua da. Espero dut taxuzko euskal filmen bat ekoizteko gai izango garela.

Eta Euskal Herria soziologikoki eta politikoki nola ikusten duzu hamar urte barru? Eta kooperatiben mundua?

Kooperatibena gehiagora joango da. Katalunian kooperatiben bigarren olatua aurrerago doa. Han ere gehiagora doa. Espero dut

alternatiba bat egotea. Gero eta indibidualismo handiagoa dago
2019-05-31
Inguruak zaintzeko moduan eta komunitatearen alde lan egiteko moduan, argi geratuko da zeinek bermatzen duen gure bizitza kalitatea bizitza zentroan jarriz. Espero dut emaitzak iristea alde horretatik, eta gero eta jende gehiago batzea. [OlatuKoop](#) eta horrelakoak oso ondo daude.



Non egingo dugu elkarrizketa hau hamar urte barru?

Mendian. Onddin, adibidez.

***Argazkiak: Iratxe Arrozpide.**

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)